

SOLASALDIAK

# Gloria Totoricaguena





# Solasaldiak [23]

# Gloria Totoricaguena



Elkarrizketa

Miel A. Elustondo

Marrazkiak

Concetta Probanza

Argazkia

Eusko Ikaskuntza

2026



*Administrazioa Euskaraz* **Solasaldiak**

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Argitaldaria: Administrazio Publikoaren Euskal Institutua (IVAP)

Diseinua: Concetta Probanza

ISSN: 1576-5563

Lege-gordailua: BI-1141-93

Fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena, S.A., Araba k. - 20800 Zarautz



# Gloria Totoricaguena

## Erran bat

Gloria Pilar Totoricaguena Egurrola (Boise, Idaho, 1961) Gernikatik Idahora joandako familia handi batean jaio zen. Euskal komunitatea gorostia bezain trinko errotuta zegoen Boiseko alderdian bizi izan ziren. Esaterako, gure solaskidearen aitak eta osabak Euskal Herritik hara joandakoen erakunde nagusiak sortzen eta indartzen parte hartu zuten. Gurasoen erbeste- eta gerra-istorioek, Gernikako bonbardaketaren memoriak eta migrazioaren arriskuek eta aukerek Gloriari identitate bikoitza modu naturalean bizitzen erakutsi zioten; esan nahi baita, aldi berean euskaldun eta estatubatuar izaten, bi munduen artean lotura biziak egiten.

## Erran bi

Etxean euskaraz eta gaztelaniaz bizi ziren, eta Gloriak eskolan eta kalean ikasi zuen ingelesez. Esan liteke horrelaxe bihurtu zuela hizkuntza-aniztasuna bere sozializazioaren oinarrietako bat, hizkuntzak ez baitzitzaizkion iruditzen tresna komunikatibo hutsak, baizik eta historia eta familia oroimenaren giltzak. Gazterik, *Oinkari Basque Dancers* taldeko dantzari arina izan zen, eta kasik hamabost urteko esperientziak —bateko entsegu eta besteko emanaldi— lidergoa, diziplina, antolaketa-lana eta talde-lana lantzeko aukera eman zizkion. Inondik ere, horrexen bidez ohartu zen bere bizitza ulertzeko modu koherenteena zela norberaren talentua eta ahalegina komunitatearen zerbitzura jartzea.

## Erran hiru

Nerabezaroaren amaieran etorri zen lehen aldiz Euskal Herrira —Gernikara, bistan dena—, eta bizi izan zen sei hilabetez bere amamarekin. Gloriak berak dioenez, egonaldi horrek «jatorrirra itzultzeko» esperientzia sakona bizitzeko aukera eman zion: kalea, familia eta hizkuntzak eza-gunak zitzaizkion, baina, aldi berean, berriak. Trantsizio pertsonal eta sinboliko erabakigarria gertatu zitzaion, eta garai horrexetan konturatu zen bere ibilbide pertsonala —hau da, Boiseko

diaspora eta Gernikako sustraiak— gai akademiko eta politiko bilaka zitezkeela; esan nahi baita, euskal kulturaren ezagutza, diasporaren esperientzia eta Euskal Herriko errealitate garaikidea-  
rekiko interesa bere etorkizuneko proiektuen ardatz bihurtu zitezkeela.

### **Erran lau**

Boisera itzulita, gazterik ezkondu zen, 19 urte zituela. Handik bi urtera, Amaia Pilar alaba eka-  
rri zuen mundura, eta ama izatearen ardura eta komunitate-konpromisoa uztartu behar izan  
zituen. Nahi eta ezinezko kontziliazioaren aldeko borrokan saiatu zen lanean, zaintzan eta bo-  
luntarioran, oreka zailean beti edo gehienez. Bestalde, Boiseko *Euzkaldunak* euskal etxe-  
ko zuzendaritzan parte hartu zuen, *Oinkari* taldeko ardura postuak hartu zituen, eta *Basque  
Museum and Cultural Center* sortzen eta sendotzen jardun zuen. Sasoi hartan diseinatu zuen  
erran delako museoaren ikuspegi didaktikoa eta diasporaren memoria bilduko zituen ahozko  
historiak biltzeko lehen proiektua.

### **Erran bost**

1980ko hamarkadaren amaieran, *Rotary International* erakundearen graduondoko beka jaso  
zuen. Delako erakundeak lider unibertsitario eta ez unibertsitarioak biltzen ditu, beren komu-  
nitateetan lan humanitarioak egin ditzaten, balio etikoak ardatz, munduan borondate ona eta  
bakea zabaldu nahirik. Beka hari esker, Montevideora joateko aukera izan zuen masterra egi-  
tera. Gaia, Latinoamerikako Ekonomia Politika. Aldi berean, Hego Amerikako euskal diaspora-  
ren errealitatea gertutik ezagutu ahal izan zuen. Uruguaiako eta inguruko herrialdeetako euskal  
etxeetan —*Euskal Erria, Euskaro, Haize Hegoa* eta beste—, bertatik bertara ezagutu eta bizi izan  
zituen diasporaren eguneroko praktikak, belaunaldien arteko harremanak eta identitatearen  
mantentze-estrategiak. Hain zuzen, horiexek bihurtu ziren geroago bere doktorego-tesiaren  
abiapuntu, beti-betiko galderari —«Nola mantentzen da euskalduntasuna mundu osoan ba-  
rreiatutako komunitateetan?»— modu sistematikoan erantzun nahirik.

### **Erran sei**

Montevideotik itzuli ondoren, Boisen hasi zen lanean, Bigarren Hezkuntzako irakasle: AEBko  
gobernu modua, politika konparatua eta gaztelania irakatsi zituen. Helburu jarri zuen ikasleei  
mundua eta botere-egiturak aztertzeko tresna kritikoak ematea. Hainbat sari eta aitortza jaso  
zituen irakasle lanaren kalitateagatik, eta ordu arte ez bezala hasi zen ulertzen hezkuntza; hau  
da, lanbide izatetik gizarte-zerbitzu eta bokazio pertsonal izatera igaro zen. Ikasleei beren jato-  
rriaz harro egoten eta, aldi berean, ikuspegi globala garatzen laguntzen lan egin zuen.

### **Erran zazpi**

Familia eta irakaskuntza uztartzen zituen bitartean, bere mentore akademiko Gregory A. Raymond irakaslearekin hitz egin, eta doktoregoa egitea erabaki zuen, diaspora- eta identitate-ikasketak sakontzeko. Boisen, ordea, ez zegoen arlo horretako doktorego-programarik, eta Ingalaterran doktoratu zen, Londreseko Ekonomia eta Zientzia Politikoak Eskolan. Hainbat beka eta sariren bidez finantzatu zuen egonaldia, prestakuntza teorikoa eta metodo zientifiko zorrotzak landuta. Orduantxe hasi zen zientzia politikoa, soziologia, antropologia eta historia uztartzen.

### **Erran zortzi**

1995 eta 2000 artean egindako doktorego-lanak ikerketa gaitza izan zuen ondorio: Argentina, Uruguai, Peru, Australia, Belgika eta AEBko 43 euskal komunitate aztertu zituen, eta ia mila lagun elkarriketatu. Tokian tokiko euskal etxeek, familia-sareek eta lagun eta ezagunek emandako azpiegitura baliatu zuen. Landa-lan horrek fruitu ugari eman zuen: ordu arteko euskal diasporari buruzko datu-base kuantitatibo eta kualitatibo osoena. Totoricaguenak sakon aztertu zituen identitatea mantentzeko mekanismoak —hizkuntza, elkarteak, jaiak, eliza, harreman politikoak...—, eta Euskal Herriaren eta diasporaren kasura egokitu zituen transnazionalismoaren eta etno-nazionalismoaren teoriak. Halaber, azalera ekarri zuen diasporak eragile politiko eta kultural gisa duen rola.

### **Erran bederatz**

Doktoretza amaitu ondoren, Reno-Nevadako Euskal Ikasketen Zentroan hasi zen lanean, eta laster izendatu zuten zuzendari. Aldi berean, Stanford Unibertsitatean euskal ikasketen lehen ikastaroa sortu eta eman zuen eta, horrela, AEBko goi-mailako unibertsitate nagusietako batean euskal gaiak curriculum akademikoan txertatu zituen. Garai berean, ahozko historiari buruzko proiektua garatu zuen, baita hainbat liburu ere: *Boise Basques*, *The Basques of New York*, *Australia: Vasconia and the Lucky Country*... Beste zenbait liburutan, berriz, edizio lanean parte hartu zuen: *The Basque Classics*, *Basque Migration and Diaspora Series*, *CBS Conference Papers*...

### **Erran hamar**

Unibertsitateko lanarekin batera, NABOren —*North American Basque Organizations*, AEBko euskal klubak biltzen dituen erakundea— historia dokumentatzeko proiektuari ekin zion, ahozko historiak grabatzen, batetik, eta klubak dokumentuak eta argazkiak biltzen, bestetik, erakundeak izan duen garapenaren memoria kolektiboa galtzea saihesteko. Handik eta hemendik saiatuta, ekarpen handia egin dio AEBko euskal esperientziari. Mintegi, artxibo-lan eta

ikerketa-proiektuen bidez, diasporaren memoria antolatzeke eta transmititzeko moduak berri-  
zituen, eta, gisa berean, Euskal Herriko gizarteari diasporaren errealitatea hurbildu zion. Bere  
lana, bestalde, eredugarri eta ispilu gertatu zaizkio beste zenbait diasporari.

### **Erran hamaika**

2008an, Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren nazioarteko aholkulari izan zen, haren azken agin-  
taldian. Momentu horretan, akademiatik politika praktikora jauzi egin zuen Totoricaguenak, eta  
horrek ikerketa teorikoa erabaki estrategiko bihurtzeko aukera eman zion. *Basque Global Ini-  
tiatives*, *Pentsamendua sare* eta *think tank* estrategikoak diseinatu eta koordinatu zituen, eta  
euskal erakunde publiko eta pribatuen nazioarteko harremanak landu. *Think tank* horren bidez,  
truke-programak eta diaspora-politikak artikulatzeko tresnak eskaini zizkien politikari, ikertzaile  
eta enpresariei, eta paradiplozia eta *soft power* kontzeptuak ekarri eta egokitu zituen Euskal  
Herrira.

### **Erran hamabi**

Joan den aspaldian, berriz, *Idaho Policy and Consulting* eta *Transnational Initiatives* bulegoa  
sortuta ari da lanean, aurretik ibilitako bideetan are gehiago barneratuz. Batean, politika eta  
multikulturen ikerketak diseinatzen eta zuzentzen ditu; bestean, diplomazia politiko, akademiko  
eta kulturala ditu helburu, eta ingelesezko hedabideetan Euskal Herriari buruzko ezagutza  
zabaltzen du, eta Euskal Herriatik eta Euskal Herrirako merkataritza proiektuak sustatzen. Ha-  
mabost herrialdetan baino gehiagotan garatu ditu diplomazia kulturala, nazioartekotze estra-  
tegiak eta administrazio publikoen arteko lankidetzak —Argentina, Australia, Belgika, Japonia,  
Mexiko...—, eta nahi beste erakunderekin jardun du proiektuak lantzen; horien artean dira, esa-  
terako, Smithsonian, Ellis Island, Boiseko Euskal Museoa, Idaho Estatuko Museoa eta beste  
hainbat erakunde. Horietan, Totoricaguenaren helburua izan da Euskal Herriaren irudi garaiki-  
dea eta euskal diasporaren esperientzia mundu osora zabaltzea, eta, horrekin batera, bestelako  
komunitate diasporak ere beren memoria- eta identitate-proiektuak antolatzea, migrazio-histo-  
riak eta kultura gutxituen balioa mundu osoan aitortzea.

### **Erran hamahiru<sup>1</sup>**

Gaur egun, Boisetik, Bilbotik nahiz munduko beste hainbat ertzetatik ari da lanean, irakaskun-  
tza, ikerketa, aholkularitza politikoa eta komunitate-lidergoa uztartzen. Emakumeen lidergoa,

---

<sup>1</sup> Zerutik jakina denez, eta tradizioak agintzen duenez, hamahirurik ez da. Resurreccion Maria Azkuek aski frogantza eman zigun Euskal Herri-  
ren Yakintza-n «San Martinen estutasuna» ipuina inoren aho-epainetatik paperera ekarri zigunean. Azkueren handitasuna! Tradizioa, ordea,  
gaurgero dakikegunez, berritzeko, iraultzeko, itzulipurdikatzeko dago, eta halaxe egin dugu: hartu dugu lizentzia, baimena, autorizazioa, hama-  
hirugarren errana ere idazteko. (Eta, hurrena, lainedaturik, hamalagarrena ere ondu dugu).



gazteen ahalduntzea eta euskal diasporaren eta Euskal Herriaren arteko loturak sendotzeko konpromisoari eusten dio, eta bere ibilbide oparo eta jarraitu horren aitoren gisa, Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria eta NABO erakundearen Bizi Emankorra saria jaso zituen 2025ean. Euskal kulturaren, diasporaren eta nazioarteko eragin akademiko eta sozialaren alde egindako lanak, Gloria Totoricaguena Egurrola euskal mundu globalaren erreferente nagusietako bat bihurtu du: diasporaren ahotsa entzunarazi du, zubigile da.

### **Erran hamalau**

Eta Gloria Totoricaguenaren berri axial emanik, solasari lotu gataizkio, gogo onez eta atsegin handian, hiztun ona, berbatia eta komunikatzaile fina baita Boiseko gernikar, Gernikako amerikar hau.



# Gloria Totoricaguena

## «Beharrezkoa dugu harrobia lantzea, politikaz arduratzea, estrategiak pentsatzea eta diplomazian trebatzea»

**Lehenik, zer moduz galdetu behar, AEBn ohi duzue. Eta, hala ere, zer moduz, Trumpen agintean...**

■ Ondo ere ez, edo Trumpen erokeriak ahal den moduan eramaten. Trumpena, eta harekin bat egin eta babesten duten errepublikanoena. Badakizu nola den gauza hemen, ezagutzen duzu herrialde hau. AEBko gizartea betidanik da arrazista, feminismoaren kontrakoa, migrazioaren etsaia. Kontua da presidente honek edozer gauza esateko lizentzia eman diola jendeari. Trumpek burura datorkion edozein zorakeria esaten du, eta horixe bera egiteko aukera eman dio jendeari. Eta hori oso arriskutsua da.

**Pete Cenarrusa (Carey, Idaho, 1917 - Boise, Idaho, 2003) zenak burua jasoko balu! Ez alferrik, Idahoko Estatu idazkaria izan zen, etenik gabe, kasik 40 urtean!**

■ Cenarrusa bizi balitz, bestela konponduko zatekeen banderaren auzia, adibidez; eta ikurriarena, jakina. Baina oraingo errepublikanoek ez baitute ezer konpondu nahi! Beti izan dute jomugan bandera multikoloreduna [ostadar ban-

dera]. Askoren artean baldin badago ere! Boiseko (Idaho) udaletxean AEBko bandera dugu, gerrako presoena, Idahoko estatukoa, Boiseko udalarena eta multikoloreduna. Bandera horrek ez du adierazten mundu guztia Boisera ongi etorria dela besterik. Aldiz, zertan hasi dira errepublikanoak? Bandera horrek homosexual egiten gaituela denok, homosexualitea normalizatzen duela eta hau eta hura. Jakina, ez dute esan faxismoa normalizatzen ari dela, gay mugimenduaren kontrako jarrerak normalizatzen, emakumearen kontrako indarkeria normalizatzen...

**Cenarrusaren garaian ez zen halakorik aditzen...**

■ Cenarrusaren garaian, Idahoko errepublikanoak askoz ere moderatuagoak ziren. Moderatuagoak, Trump etorri arte. Edo, beharbada, ez ziren moderatuagoak, baina, behintzat, ez zuten halako barbaridaderik ahoz gora esaten. Beharbada, oraingo hauek bezala pentsatzen zuten, berdintsu sentitzen zuten, baina ez ziren ausartzen beren uste gordinak lau bazterretara zabaltzen. Trumpek, eta bera babesten dutenek, parez pare ireki dizkiote ateaak itsusikeriari. Beldurraren hazia erein dute.





«Beldurrak zaintzen du mahastia», da esaera.

■ Guri lana kentzera datozela da beldurretako bat, adibidez. Migratzaileari beldurra. Begira, aste honetan euskaldunei buruzko podcast batean parte hartzekoa naiz. Euskaldunak eta immigrazioa. Ez dira garai onak, eta, bestalde, beti dago immigranteari beldurra dion jendea. Hala ere, euskaldunak ere emigrante izan dira, eta inora joanda ere, tokian tokiko gizartean integratzen saiatu dira. Biak egin dituzte: beren identitateari eutsi, eta tokiko identitateaz jabetu. «Euskal argentinar», «euskal venezuelar», «euskal australiar»... egin dira. Beren identitateari bestelako bat erantsi diote, identitate nahasi bat eraiki dute, eraiki ahal delako, posible delako eta munduan denik eta gauzarik normalena delako; diasporan, bederen.

**Errazagoa orain, teknologiari esker.**

■ Seguru! Garai batean, emigranteak irudimena behar zuten. Gogoan dut Australian Nafarroako emakume batzuk elkarrizketatu nituela. Etxetik irtetean, nora zihoazen ere ez zekiten, ez Australia non zegoen, ez nolakoa zen, ez zer egingo zuten. Eta, okerrenea, ez zekiten inoiz beren etxera itzuliko ziren ere! Joaneko txartela zuten, ez besterik.

**Zure familiaren kasuan, bai aitaita-amamak, bai gurasoak itzuli ziren Gernikara...**

■ Eta atzera Idahora etorri ziren berriz! Ez da ohikoa ere. Gure ama da Mari Karmen Egurrola Albizu, gernikarra, bonbardaketatik bizirik irten-dakoa. Hiria gutxi-asko berreraiki eta gero itzuli ziren bertara, eta aita —gure aitaita— postari hasi zen Gernikan. Gure aita zen Teodoro Totorikaguena Erkiaga. Aitaren aldeko gurasoei dagokienez, bata zen Arbazegikoa eta, bestea, berriz, Is-

pasterrekoa. Idahora emigratu zuten, artzain, eta bertan izan zituzten lehen seme-alabak. Ondoren, Gernikara itzuli ziren, eta beste hiru seme izan zituzten, tartean gure aita, Teodoro. Espainiako Gerra Zibila sartu zenean, atzera Idahora egin zuten, eta ez zuten Gernikako bonbardaketa bizi izan. Ordurako, gero baino gero gehiago ziren euskaldunak Idahon. Aitak, lehenik, Grandviewn (Idaho) lan egin zuen, gurasoen ardi negozioan eta nekazaritzan. Hurrena, Idaho iparraldeko zilar meategietan, estatuko garraio departamentuan eta honetan eta hartan ibili zen. Garaian, 1949an, *Euzkaldunak* euskal etxea sortzen parte hartu zuen, bere aitarekin batera.

**Handik laster etorri zen zuen aita Euskal Herrira, emazte bila.**

■ Gure aitak 34 urte zituen, eta bere anaia Segundok, bi gehiago. 1952. urtea zen. Amak Gernikara joateko agindu zien, andrea hartzera. Urte hartako urrian, ezkontza bikoitza ospatu zuten Gernikan. Eta urtea amaitu baino lehen, Idahon ziren laurak, betiko. Ohiko joan-etorriak.

**Horraino, baliteke. Baina, zuen kasuan ere —hirugarren belaunaldia—, berdin gertatu zen!**

■ Bai. Gure gurasoek hemen (Idaho) izan zituzten lehen hiru seme-alabak. Haiek jaio, eta Gernikara itzuli ziren. Urte bi egin zituzten han, eta bertan jaio zen gure ahizpa bat [Rosa Mari], 1959an. Francoren diktadurak ez zuen etenik, ordea, eta atzera Idahora etortzea erabaki zuten gurasoek. Eta hemen jaio nintzen ni 1961ean, eta hiru ume gehiago gero. Ordurako, Idahon eta Oregonen barrena bizi ziren gure osaba-izeba eta lehengusu-lehengusinak, lotura estua zuten, eta harremanetan gara oraindik.



## lehen urteak

«Gloria euskal familia batean jaio zen; familia ugaria, katolikoa, progresista eta immigrantea. Ordurako, Boisen bazen euskal komunitate immigrante sendorik, eta harreman sare handia zuen Euskadiko senideekin. Gloriak identitate bikoitza bizi izan du beti, euskalduna eta amerikarra. Etxean, euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten zuten. Ingelesa gero sartu zen, eskolan ikasi genuenean, eta telebistari begira! Hezkuntza publikoak eta *Oinkari* dantza taldean igarotako nerabezaroak lidertza gaitasunak ikasteko eta praktikatzeko nahi beste aukera eman zizkioten; besteak beste, helburuetan zentratzea, ondokoei irakastea nahiz eurengandik ikastea, gogoetatzea, etikaz baliatzea, beti gogotik saiatzea eta inork usteko lukeena baino hobeto lan egitea, xehetasunen inportantzia balioestea... Gloria *Oinkari*ko dantzariekin ibili zen 1975etik 1986ra, astero zituzten entsegu eta emanaldiak, hala Idahon nola mendebalde osoan barrena, eta garai hartan lagun egindako euskal amerikarrak lagun izan ziren betiko. Urte haiek, 14 eta 26 urte artekoak, Gloriak euskal identitatearekiko duen interesa eta konpromisoa areagotu besterik ez zuten egin»

(Gloriaren senideek idatzia)

## Oñati

70eko hamarkadaren amaieran eta 80koaren hasieran, etxeko ahizpa nagusiek, Doloresek eta Rosa Marik, Boiseko Unibertsitatearen atzerriko ikasketen programan parte hartu zuten. Esate baterako, Dolores Oñatiko programaren lehen urtean izan zen 1974-75ean. 100 bat ikasle inguru ziren, Idaho inguruko euskal jatorrikoak; gehientsuenak, bederen. Doloresek hainbat gutun idatzi zituen Boiseko etxera, amaren aldeko Egurrola Albizu familiak kontatzen zituenak kontatzeko —Francoren azken orduak, Euskal Herriko politika giroa...—, eta, era horretara, Boiseko euskal etxera heltzen ziren egunkariak zekarten informazioa osatzen ohi zuten.

### Zenbat jirabuelta eta atzera-aurrera!

■ Zenbat historia eta zenbat galdera, ezta? Eta 1929ko *crash*-a eta ondoko depresioa AEBn, eta 1936ko Espainiako Gerra eta frankismo gogorra han! Eta Bigarren Mundu Gerra ondoko Idaho, berriz, guztiz aberatsa! Denetatik zegoen hemen, eta denetatik zeukaten euskaldunek. Are, euskaldun ere izan zitezkeen. Ondo edo gaizki, baina euskaldun izan zitezkeen... igandeetan, behintzat! Euskal etxea zeukaten, eta hainbat euskal ostatu, eta, batean eta bestean, euskaraz hitz egiten zuten, Euskal Herriko modura jaten zuten, kantatzen zuten, dantzatzen zuten, informazioa zabaltzen zuten... Euskal Herriaz betetzen zituzten gogobihotzak, lagunarte ederrean. Eta, gero, betikoa: asteen zehar, lan egiten zuten, gogotik! Astearen amaieran, Boiseko Euskal Herrian bizi ziren.

«[Idahoko euskaldun haiek] asteen zehar, lan egiten zuten, gogotik! Astearen amaieran, Boiseko Euskal Herrian bizi ziren»

### Komunitate trinkoa osatu zuten.

Euskaldunak asko ziren, eta Boise, berriz, hiri txikia, garai hartan. Boise ez zen New York, non euskaldunak ez ziren nabarmentzen, non komunitate askoren artean bat gehiago ziren. Bestela zen Boisen, eta gaurdaino bere horretan iraun duela esango nuke. Hemen militantzia bat izan dugu, aktibismoa ere izan da. Euskal Herriko kulturarekiko interesa, oro har, eta politikaz eta historiaz jakiteko gura. Boise euskaldun aktiboz osatutako komunitatea izan da. Hemengo gazteak, urte as-

koan, beste zenbait tokitara joan dira ikasketak egitera, baina ikasketak amaitu eta gero atzera Boiserara itzultzeko borondatea izan dute, beren komunitatera bueltatzeko asmoa.

### **Zeure bidea deskribatzen ari zataizkigu.**

■ Baita hori ere! Kanpoan ikasketak egin, baina Boiserara itzuli nintzen, neure komunitatearen altzora. Eta gazteei laguntzen diet, eta hitzaldiak egiten ditut han eta hemen, eta saiatzen naiz eragiten, *soft power*-aren bidez, diplomaziaren bitartez.

### **Soft power-aren euskaldunen aitzindari zaitugu AEBn?**

■ Pentsatu ere ez! Ez dakit New Yorkeko euskaldun haiek ezagutu ote zenituen, Emilia Doyaga, Ana Agirre... Haiek ere benetako *soft power*-a praktikatu zuten. Sarea egin zuten unibertsitateko irakasleen artean, merkatarien artean, politikarien artean. Politika egiten zuten, benetako politika. Eta joaten ziren NBERa, eta behar zenarekin hitz egiten zuten. Ez zen diplomazia, paradiploiazia baizik, estatuaren babesik gabekoa: *soft power*-a.

### **Boiseko euskaldunek gauzatu duzue, New Yorken ere bai garai batean. Beste inon ez?**

■ Beste batzuk ez dira legislatura auzietan sartu, ez lege, ez erresoluzio: ez dute ahaleginik egin beren estatuko politikan eragiteko. Beharbada, San Frantziskoko euskaldunek han edo hemen sartu dute muturra halako erakusketa bat museo jakinen batean erakutsi ahal izateko, baina ez dira urrunago heldu. Ez dute lortu, adibidez, Idahokorik: estatuak ikastola onartzea. Idahon bai, lortu dugu! Badugu ikastola, eta lortu dugu estatuak ikasle horiei ikastola garaiko urteak legez onartzea; hau da, eskola publikora joateko adina bete, eta hara joaten direnerako, ikastolan ere heziak izan direla legez onartzea.



## lehen bidaia

Gloria Totoricaguena 1980an izan zen lehen aldiz Euskal Herrian. Boiseko unibertsitatean lehen urtea konplitu eta gero, sei hilabete egin zituen Gernikan, Dolores Albizu Garro amamaren etxean. Beharbada, hantxe piztu zitzaion euskal kulturaz, diasporaz eta politikaz al bait gehien ikasteko grina. 18 urte zituen, baina, ordurako, ezkontzeko hitza emana zuen. Gernikatik Boiserara itzuli, eta ezkondu zen. Handik urte bira, alaba ekarri zuen mundura: Amaia Pilar. Garai berean, Boiseko *Euzkaldunak* euskal etxeko lehendakariorde izendatu zuten, eta *Oinkari Basque Dancers* taldeko eta Boiseko Euskal Museoko zuzendaritzetako kide izan zen.

M.A.E.

### **Eta maila politikoan, adibidez?**

■ Adibidez, lortu dugu Idahoko estatuak egiten duen zeinahi ekitaldi ofizialetan euskal komunitateko kideren bat presente egotea. Eman dezagun Mexikoko kontsula datorrela. Hantxe izango nauzu, Idahoko euskaldunen ordezkari. Italiako kontsula izendatu berri dute Idahon, eta laster hots egin zidaten ongietorri zeremonian izan nendin.

«Inportantea da Idahoko estatuak egiten duen zeinahi ekitaldi ofizialetan euskal komunitateko kideren bat presente egotea»

### **Zer inportantzia du horrek?**

■ Ez txikia! Niri inportantea iruditzen zait han eta hemen euskalduna presente egotea. Ez bazau-de, ez zaude, ez zara existitzen, orain esaten den moduan. Beharbada, ez duzu lehen lerroan egon behar ere, baina han izan, behintzat, parte hartu dena delako ongietorri ofizialean. Berdin egiten dugu *Jaialdi* ospatzen dugunean, Idahon ditugun bateko eta beste komunitateak gonbidatzen baititugu: vietnamdarra, estatubatuarra, bosniarra... Eta eurek festibalen bat egiten badute,

hantxe naukate: «Nire izena Gloria Totoricaguena da, Boiseko euskal komunitateko kidea naiz, zorionak jaialdi hau egiteagatik, gauza zoragarria da, eta niretzat, berriz, ohore handia da zuekin bat egitea», eta tar-tar-tar. Eta batarekin eta bestearekin hitz egin, harremanetan sartu, loturak egin, sareak josi.

### **Zenbat dira zu bezalakoak? Ez ote zara salbuespen?**

■ Baliteke. Nik, egia esan, harrobia landu behar dugula uste dut. Eta zenbait pertsonarekin hitz egin dut horretaz! Politikaz arduratuta bizi dira, ni bezala, eta uste dut politikaz arduratuko den jendea behar dugula: Euskal Herria ezagutuko dutenak, Europako Batasuna... Nik 64 urte ditut, Roy Eigurenek [abokatua] 80, Miren Artiach zaharragoa da oraindik, Cenarrusa hil zen... Izerdi berria behar dugu.

### **Horixe esaten ari dira Euskal Herrian, gazteak politikatik urrun bizi direla... Nola erakarri gazteak euskal etxe bateko eginkizunetara, adibidez?**

■ Belaunaldiak eta belaunaldiak igaro dira gu hona heldu ahal izateko. Belaunaldiak eta belaunaldiak! Gaur egun —eta hemengo euskal amerikarrari buruz mintzatzen ari naiz orain—, gazteak, batetik, amerikar izan nahi du, besteak bezalakoxea, ez du nahi inork bera seinalatzerik. Bestetik, ordea, besteak ez bezalakoak izan nahi du, bakarra, ezberdina. Euskal amerikar izaerak bi-biak izateko aukera ematen dio gazteari: eskolan dagoenean, eta besteak bezalakoak izan nahi duenean, amerikarra da. Eta, aldiz, bestelako momentu eta egokiera batzuetan, bakarra eta esklusiboa izan nahi duenean, euskalduna da, eta halakoxe diskurtsoa egingo du: «Bai, Smith dut deitura, baina amama Urionabarrenetxea nuen, euskalduna zen. Partez euskalduna naiz neu ere!».



### Aukeratzeko moduan dira gazteak, komenentziaren arabera.

■ Gure amak ez bezala, ez baitzuen aukeratzeko modurik izan. Gaur egun ere ez! 94 urte ditu, 70 urte baino gehiago egin ditu Boisen, baina alferrik! Doinuak salatzen du! Ezagun du hemengo ez dena! *Good morning!* esaten duen orduko, jendeak badaki kanpotarra dela. Oraingo euskal amerikar gazteak, aldiz, ez du bestelako doinurik, ez da diferente janzten, ez du larruazal ilunik, kristaua da... Ez du bere burua nabarmentzen,

beste hainbat immigrantek ez bezala egin ohi du. Eta Urionabarrenetxea bada ere, Tiffany du izena! Edo deitura laburtzen du, askok egin duen moduan, eta Uriona da, beste gabe. Edo Sendagortagalartza izan beharrean, Sendagorta da, edo Galartza. Oso joera zabaldua izan baita AEBn. Gazteak aukeratzeko ahal du izaera. Batean, halako da. Bestean, beste halako. Lagunarte bat dute eskolan, eta bestelako kuadrilla bat euskal etxean. Eta joaten dira Euskadira, eta han ere eroso daude. Tira, gutxi gorabehera.

## deiturari osorik eutsi...

—AEBko euskaldun askok ez bezala egin duzu. Deitura laburtzera egin dute askok, zuk ez.

—Ez, bada! Badakit deitura laburtzera egin duela euskaldun askok hemen, eta zenbait senidek gure Totoricaguena bera ere laburtu egin du! Nik ez, Totoricaguena naiz, eta Totoricaguena izango naiz beti. Ahizpa nagusiek esaten dute nire deituraz galdetzen didatenean bi bertsio ere baditudala: bata, 30 segundokoa; bestea, hitz egiten uzten badidate, ordu laurdenekoa; eta, orduan, nire deiturari buruz eta euskaldunei buruz ere informatzen dudala jendea, eta AEBra joandako euskal emigrazioaz ez ezik, gaur egungo Euskal Herriko problematikaz ere jarduten dudala. Ez dakit hala den. Ahizpa nagusiei galdetu beharko zenieke!

Totoricaguena

aguena



## ama

«Beti esan izan dut gure ama giza entziklopedia hutsa dela. Behin eta berriz eta askotan ikusi dut egin dituen konexioak, Gernikako eta Boiseko munduen arteko loturak, baina ez inor baino buruargiagoa delako, elkarrizketari bost minutu gehiago eskaintzeagatik baizik. Gerta liteke batek esatea: 'Bai, uste dut gure etxeokak Ispasterretik datozela'. Eta gerta liteke denok inoren uste hori ontzat ematea —inork kasurik ez egitea da, askotan—, edo interesa agertzea, eta esatea: 'Ispasterretik etorri ziren? Eta deitura?... Eta nahi zenuke halakorekin harremanetan jarri? Baliteke hark berri gehiago izatea, zeure jatorriaz gehiago jakiteko modua egiten laguntzea'. Elkarrizketari arreta pixka bat ematea gakoa izan liteke, bost minutu gehiago eskaintzea. Uste dut horixe, behintzat, jaso dudala amagandik».

## sariak

**1987-2001.** Bigarren Hezkuntzako irakasle jardun zuen. Garai hartan hainbat sari jaso zituen: Idahoko Gobernadorearen Ekimenaren saria, Idahoko Estatuko Irakaskuntzako Bikaintasunaren saria, *Target* Irakasleen Bikaintasunaren saria, Idahoko Unibertsitateko Irakaskuntzaren Bikaintasunaren saria, *Tufts* Unibertsitateko Irakasle Inspiratzailearen saria, Idahoko Humanitateen Kontseiluaren Irakasleentzako Ikerketa beka eta Idahoko Humanitateen Kontseiluaren Irakasleentzako Pizgarri beka, besteak beste. Gainera, AEBko irakasleen artean hautatu zuten 1994, 2000 eta 2002 urteetan.

**1995-2000.** AEBko Humanitateetarako Nazio Funtsaren beka jaso zuen, baita AEBko Emakume Unibertsitarioen Elkartearen doktorego-saria ere. Halaber, eskuratu zituen Boise State Unibertsitateko Ikasle-ohi Bereizien Hogeigarren Urteurreneko saria, Idahoko Humanitateen Kontseiluko doktore ondoko ikerlari independentearen saria eta Euskal Fundazioaren euskal ikasketetarako doktorego-ikerketarako beka.

M.A.E.

### Gutxi gorabehera? Zertaz ari zara?

■ Orain inoiz baino jende gehiago dabil hara eta hona. Pentsatu ere ez duela 40 urteko konturik. Hegaldiak kasik merke-zurrean daude. Askotan ez dakigu jendea non dabilen, noiz AEBn, noiz Oaxacan, noiz Bilbon. Eta hemengo gazteak joaten dira Euskadira, eta uste ez bezalako herri bat ikusten dute, oraingo euskalduna ez delako bere gurasoak bezalakoa, duela 50 urteko hura. Euskaldun izateko modua bera errotik aldatu da Euskadin. Duela 50 urte, Euskal Herria diktaduratik irriten ari zen, militarismotik urruntzen, frankismoari agur esaten ari zen... Garai batean, euskaldunak bat eginda ari ziren faxismoaren kontra, borrokan, denak batera... Gaur egun, besterik da, dibertsitatea da nagusi.

### Euskal Herriari begira bizi da diasporako seme-alaba?

■ Garai batean, bai. Garai batean, Euskal Herria zen diasporaren ardatza. Diasporan uste genuen han bezala egin behar zela hemen, hangoak bezala jantzi... Eta joaten zen jendea Euskadira, eta hura ezustea! Euskaldunak, bata ilea purpuraz tindatua; bestea, gandorra zeramala, nahi beste belarritako han eta hemen, rock musika bazter guztietan... Modernitatea! Eta, jakina, diaspora ere aldatu egin da, garai berrietara moldatzen ari da. Immigrazioak ere eragingo dio euskal identitateari.

### Immigrazioa kezka bizi ohi du gizarteak...

■ Jendeari ongietorria egin behar zaio, guri egin ziguten bezala, gu besoak zabalik hartu gintuzten eta. Iruditzen zait Euskadin ez dela horretaz askorik hitz egiten. Emigrante herria izan gara, eta, orain, aldiz, immigrazioaren kontrako jende asko dago Euskadin. Edo beldurra dio immigranteari. «Zergatik datoz hona? Zergatik datoz hainbeste? Ez dute gure ohiturarik errespetatzen! Guri lana

kentzera etorri dira! Ez dute gure hizkuntza ikasten! Europan daude, gure bizimodura egokitu behar dute!». Zenbat beldur jendeak!

### Euskaldunak ez du halakorik ezagutu?

■ Uste dut beste zenbaitek baino errazago egin duela bidea. Euskalduna Europatik zetorren, Europako kultura batekoa zen, kristaua... Latinoamerikara migratu zutenen kasuan, asko edo gutxi gatzelaniaz hitz egiten ere bazekiten, europarrek presentzia handia izandako tokietara jo zuten, herri kolonizatueta... Ez zuten diskriminaziorik bizi izan, ez arrazakeriarik ere. AEBn eta Australian, izatekotan, euskaldunek katolikotasunaren kontrako jarrera ezagutu zuten, beharbada, baina gauza handirik ere ez.

**Utzidazu hitz beste egiten, Gloria. Irakasle izan zinen, Reno-Nevadako Euskal Ikasketen Zentroko zuzendari ere bai, Ibarretxe lehendakariaren kolaboratzaile... *Idaho Policy and Consulting* eta *Transnational Initiatives* enpresak gidatzen dituzu, baina, zein duzu lana?**

■ Argindarra nola ordaintzen ahal dudan jakin nahi duzu, inondik ere. Kar, kar!

### Halakoren bat. Kar, kar!

■ Aholkularia naiz; *consultant*, ingelesez. Eta era guztietako diplomazia dut lan arloa: kulturala, politikoa, akademikoa... Era guztietako diplomazia praktikatzen dut, eta era guztietako bezeroak ditut. Adibidez, eman dezagun Bizkaiko Diputazioa nirekin harremanetan jartzen dela esateko nazioarteko merkataritzari buruzko halako kongresu batean parte hartu nahi duela, eta niri dena prestatzeko eskatzen dit, eta erakundea bera ere ordezkatzeko. Orduan, nik zubi lanak egiten ditut, egin nahi dutena zentzuzkoa dela ziurtatzen dut, eta aurrera jotzen laguntzen diet.

«Immigranteari ongietorria egin behar zaio, guri egin ziguten bezala. Iruditzen zait Euskadin ez dela horretaz askorik hitz egiten»

### Zentzuzkoa dela? Ba ote?

■ Bai, bada! Konparazio batera, inork eskatuko balit —diputazio horrek berak, adibidez— mormoiek eratutako merkataritza topaketa batean parte hartu nahi duela, eta Euskadiko ardoak —edo Bizkaiko txakolinak, demagun— erakutsi nahi dituela, laster esango diet oker dabilzuala, burugabekeria hutsa dela mormoiei ardorik ez txakolinik eskaintzea, *Jakintzaren Hitza*-k [Jainkoak Joseph Smithi egindako errebelazioa, mormoiek jarraitzen duten kodea] galarazia die-lako alkohola. Argentinako artista batek —euskal jatorrikoa nahiz euskaldunen aldekoa— San Frantziskon (Kalifornia) erakusketa bat egin nahi duela? San Frantziskoko euskaldunei hots egiten diet, ea inork lagundu ahal digun. Makineria koipeztatzen saiatzen naiz, ateak irekitzen, bideak errazten. Ezagutuko duzu, noski, Araban duzuen [Aernnova] Aerospace kontsorzioa, ezta?

### Aditza dut...

■ Idahoko iparraldean gisa bereko kontsorzioa dugu. Eta, beraz, haraxe joan eta Arabakoaren berri ematen diet. «Norekin ari zarete lanean?», galdetzean, Frantziako Airbus konpainiarekin ari direla erantzuten didate. Orduan, nik: «Eta ez ote legoke batere modurik zuen ingeniariak eta Araban ari direnak nola edo hala biltzeko, elkarlanen bat gauza dezaten?». Kontua ez da lehia sustatzea, elkarlana baizik, eta berdin da zientziaren arloan edo unibertsitate mailan.

## Eusko Ikaskuntzaren saria

«Ohore handia dut Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria jasoa. Zenbait merezimendu, erakundeek jasotzen dituzte. Eta ongi da. Beste batzuk, berriz, pertsonak jasotzen ditugu, baina ezinezkoa da, ez da posible pertsona bakar batek jasotzea, mikrofonoan ariko den saritu horren atzean, argazkian ageriko den horren gibelean, hari bere bidean lagundu dion jendea dagoelako, jende asko. Nire kasuan, jende asko baino gehiago ere bai! Zenbat jendek lagundu didan landa-lana egin dudan herrialdeetan! Zenbatek hartu nauten etxean! Zenbatek lagundu didan inkestak eta elkarrizketak egiten! Eusko Ikaskuntzaren saria, nirekiko, diasporari eman diote, eta diasporako gaiak landu ditugun guztioi».



## Berdin da politikan.

■ Izan liteke! Lehendakariak New Yorkera etorri nahi duela IBMko arduradunekin hitz egitera Donostian ez-dakit-zer bat jartzera doazelako? Saiatu egiten naiz. «Ados. Lehenengo, senatariren batzuekin kontaktatzen ahaleginduko naiz, IBMko atea zabaltzen lagun diezaguten». Berdin, hemengo hedabideei Euskal Herriko berriak emateari dagokionean. Batean, Pedro Migel Etxenike eta [*Donostia International*] *Physics Center*-a izango da. Bestean, [*Basque*] *Culinary Center*-a. Eta, sinistu, borrokan ari naiz beti, AEBko euskaldunak ez direla, bakarrik, txorizoa, paella... edo kalimotxoa! Mesedez!

## Kar, kar!...

■ Barre egiten duzu, baina egia da! Horretantxe ari naiz beti, hemengo hedabideei datuak ematen, estatistikak eskaintzen, benetako informazioa. Kontua ez da kazetariei elkarrizketa bateko titularrak eskaintzea, ez. Hori baino gehiago egin behar dugu, Euskal Herrian oraindik indarrean dauden balioak zein diren azaldu, besteak beste, eta kontua ez dela AEBn bezala, dirua, dirua eta dirua. Badela diruaz besterik! Euskadiko politika eta AEBkoa diferenteak dira. Eta ez politika bakarrik. Hona ez etorri merkataritza akordio bila jasangarritasuna aitatzten, adibidez.

## Jasangarritasuna? Zer ikustekorik du jasangarritasunak merkataritza akordio batean?

■ Ea! Utahko zenbait enpresak Euskadin filialen bat irekitzea bada helburua, adibidez, tentu handiz hautatu beharko ditugu hitzak; eta, gure helburua bete nahi badugu, hobeko da zenbait hitz ez erabili. Esaterako, *jasangarritasuna*. Esate baterako, *dibertsitatea*. Esate baterako, *berdintasuna*, *inklusioa* eta beste hainbat. Euskadin kontratu bat lortzeko balio duten balioek hemen kontrako erreakzioa eragingo lukete; zenbait lege federalen aurkakoa ere izango

lirateke horietako batzuk. «Bestelako hitzak baliatuko ditugu», neure buruari esan, eta hasten naiz bila. Nire lanaren parte duzu hori dena, Euskaditik datozen proposamenak —kultural, akademiko nahiz politiko— landu eta bideratzea, prozesuan laguntzea, logistika eskaintzea.

## Eta mormoien biltzar batera joan nahi bada, hobegure ardorik batere ez aipatzea.

■ Horixe. Eta, horretarako, nahitaezkoa da bi errealitateak ondo ezagutzea, Euskadikoa eta hemengoa. Europako Batasunaren barruan da Euskadi, hango arabera jokatu behar dute euskaldunek, baina, hemen, bestelakoak dira jokoaren arauak. Estatua demokrata den kasuan —Kalifornia, Washington, Oregon...—, eta, beraz, progresista, erraz antzean gauzatuko da lotura. Aldiz, estatua Utah bada, neketan!

## Eta estatua Idaho bada?

■ Beharbada bai, beharbada ez. Kar, kar! Honenbestez, kontatu dut zertan den nire aholkulari lana.

## Orduan, azken galdera bat: Boiseko Kapitolioan ikusi zaitugu, ikurrinaren defentsa zorrotza egiten. Joan izan ez bazina, zer?

■ Ni joan izan ez banintz, ez zatekeen inor joango. Protesta jo bai, etxean, euskal etxean edo ondoko tabernetan. Gaizki iritziko zioten, baina ez zuketen besterik egingo, ez dakitelako gauzak nola funtzionatzen duen, zein den bidea, Kapitolora joan, batzorde legegile baten aurrean auzia aurkeztu, eman beharreko arrazoiak eman... Jendeak ez daki hori egiten, edo ez dauka bere buruarengan hori egin ahal izateko konfiantzarik. Facebook-en zernahi jartzea erraza da; eta ikurrina dela-eta, ehunka iruzkin eta esamesa idatzi zituzten batzuek eta besteek, baina, azkenean, besterik behar da.

## Ikurrina Boiseko Kapitolioan! Lehen ere esan dut, Cenarrusak burua jasoko balu!

■ Bai horixe! Oraingo errepublikano horrek ez zukeen halakorik egingo, halako proposamen baldarrik egingo. Sekulako barbaridadeak esan zituen, ordea! Ikurrina ez erakusteko arrazoiaren artean, esan zuen ETAREN bandera dela, terrorismoaren ikurra, hau eta hura! Eta egunkarietan agertu zen, irrati-telebistetan, ohiko hedabideetan ez ezik, baita oraingo sare sozialetan ere. «Horrek erantzuna merezi du!», esan nion neure buruari. «*Soft power* pixka bat, baina mailu eta guzti!». Eta nor duzu komunitateko mailua? Ni neu. Eta, joan nintzaian, eta neure curriculumak irakurri nien: Londreseko Ekonomia eta Zientzia Politikoen Eskolan doktoratua, Stanfordin Unibertsitateko Euskal Ikasketak irakasle, Reno-Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroko zuzendaria... eta abar.

### Eta?

■ Eta? «Hemen esan dena zuzentzera etorri naiz; parlamentu honen erregistroetan jaso behar da zuzenketa: ikurrina, bandera ofiziala da Espainian, eta ofiziala denez, han eta hemen libre erabil daiteke...». Lehendakariak ere [Imanol Pradales] mezua bidali zuen, esanez errepublikano hura oker zegoela, ikurrina Euskadiren bandera ofiziala dela, Euskadi komunitate autonomo ofiziala dela espainiar estatuaren barruan, eta hau eta hura. Helburua, erregistratutakoa aldatzea zen, zuzenketa aurkeztea. Horrelaxe joan nintzen Kapitolora, egin nuen diskurtsoa, eman nituen arrazoiak. Hori ez ezik, gaia eztabaidatzen ari zen batzordeko kideekin kontaktatu behar izan nuen, eta haiekin banaka-banaka hitz egin. «Zein duzu arazoa? Zer duzu ikurrinaren kontra? Edo ostadar banderak egiten dizu min? Zein duzu jomuga?».

## Ikurrina Boisen

2026ko otsailaren 10ean Gloria Toticaguena Egurrolak agerraldia egin zuen Boiseko Kapitolioan, *Idaho House State Affairs* batzordearen aurrean, Ted Hill ordezkari errepublikanoari erantzunez. Hill, dakigunez, LGTBQ+ kolektiboaren ikur den ostadar bandera Boiseko udaletxean utzi, ez utzi piztutako eztabaidaren kariatara ari zen, 561 Legeari atxikiz, zeinak toki publikoetan bandera ofizialak baizik ez baititu onartzen.

Toticaguenak aho-bilorik gabe jardun zuen, ikurrina erakutsiz, eta, Ted Hilli ez ezik, Kapitolioan bildutako guztiei zuzenduz: «Hau da euskaldunon bandera, ikurrina, Boiseko udaletxean ageri dena. 100 urte baino gehiago dramatza Idahon, bateko udalerrian eta besteko parke eta eraikin historikoetan. Euskal Herrian bertan baino lehenago, legezkoa izan zen Idahon. Ikurrinak komunitatea egiten laguntzen digu. Inoiz ez da batasunaren aurkakoa izan. Are, bake sinboloa dugu: *Jaialdi* festibala ikusi besterik ez duzue».

Horiek eta gehiago, Toticaguenak esandakoak.





### Ostadar banderaren kontrako ziren?

■ Bai. Esan nien hura ez zela legeak egiteko modua, hura ez zela gobernantza eredu. Are, gisako bandera guztien aldekoa nintzela esan nien, ostadar banderak bakea, maitasuna, komunitatea... adierazten zituela, inoiz ez dela biolentziaren garrantzan erabili, AEBko bandera ez bezala; AEBko bandera oso modu biolentzian erabili zela Kapitolioan (Washington), 2021ean, urtarrilak 6 zituen egun batean, eta aldiro-aldiro erakusten dutela nazionalismo zuriaren aldarri egiten duten arrazistek. «Banderarik kentzekotan, AEBkoa kendu beharko genuke. Sen onez jokatu behar dugu, eta sen ona ez da ideologia jakin baten jabetzakoa». Horrela!

### Zertan da auzia? Edo bere horretan utzi da?

■ Idahoko parlamentuaren eztabaidatik erretiratu dute. Parking batean bezala dago. Ez dago

puska batean berriz horretaz jardungo duten itxuririk. Berridazten saiatzen ari dira, hau eta hura kendu lehen proposamen hartatik, zuzendu... Bitartean, parkingean dute. Eta, dena, saltsa gizen hau, ezjakintasunak eragin du! Zeuk esango didazu ez ote dugun euskaldunok beharrezkoa harrobia lantzea, politikaz arduratzea, estrategiak pentsatzea eta diplomazian trebatzea.

### Soft power-az ari zara beti, paradiplomaziaz...

■ Kontua ez baita mailua hartuta joatea. Tira, batzuetan bai, beharrezkoa da mailua, baina hobe da mailua behar den momentura ez heltzea. Aurretik saiatu behar da: lursaila goldatu, simaurtu, erein... behar dugu, geroke batean komunitateak uzta jaso dezan.



diplomacia

Política

Intercultural

Estadística

Mitología

diplomacia

baile

Cultura

Comunidades

de

